

Zaldi Eroa

EGUNKARIAK
Nafarroan
argitaratzen duen
Nafarkariaren

irakurleek oso ongi ezagutzen dute *Zaldi Eroa*. Azken urteotan, astero-astero, haren umore berezia ezagutu ahal izan dute orrialde horietan, eta baita bere ideiak zabaltzeko erabiltzen dituen pertsonaiak ere, *Noski Jator* eta bekarioa, esate baterako. Baina *Nafarkari*az landa, *Zaldi Eroak* beste euskarri batzuk ere erabili ditu bere istorioak kontatzeko. Horietako batek, *TMEO* aldizkariak, azken urteotan argitaratutako lanak liburu polit batean bildu eta kalean jarri ditu.



OSKAR MONTERO

Etxean dituen Star Wars-eko jostailuekin jolasten hartu gaitu Patxi Huartek.

Gizartea arakatzan

Zaldi Eroaren atzean Patxi Huarte iruindarra dago, ofizio askotako gaztea. Komikigilea, artikulugilea, idazlea, ilustraziogilea..., zaila da Huarte hitz bakarrarekin definitzea, lan arloari dagokionez behintzat. Ideiak eta gaiak, ordea, antzekoak ditu, bai idazterakoan, bai komikiak egiterakoan, eta ez da zaila ildo edo joera batzuk aurkitzea haren lanean: «Nik, berez, idatzi egiten dut, istorioak sortzen ditut, eta horietako batzuk marrazkien bidez ematen dira ezagutzera. Baina gaiak eta jorrazteko era oso antzekoak dira batean edo bestean. Euskalzaletasunari buruzko artikulua bat idatzi eta gai berari buruzko tira ateratzen zait askotan».

Komikiak idazten eta marrazten aspaldi hasi zen Euskal Herria Irratiko teknikari ohi hau, baina lehenengo argitalpenak orain dela bost bat urte egin zituen, *TMEOn* hain zuzen ere. Orain, ohi-turari jarraiki, aldizkariak urtean bitan gaztela-

niaz kaleratzen duen bildumak Patxi Huarteren lanak jaso ditu. Izan ere, euskaldun berria da Patxi, eta gaztelaniaz zein euskaraz argitaratzen du, nahiz eta bere ama-hizkuntzan hobeto, edo gutxienez erosoago, sentitzen den. *Zaldi Eroaren* bilduma horretan ere gaztelaniazko lanak dira nagusi, baina euskarazko orrialde batzuk ere gehitu dizkio.

Huarteren komikietatik era askotako jendilajea igaro da, baina fauna horren barruan, toki handi samarra betetzen dute boterearen ordezkariak: poliziek, militarrek... «Nire komikietan argi eta garbi nabaritzen da boterearen kontrako ideologia, eta alde horretatik anarkistatza dut neure burua. Bestalde, neure burua politikoki klasifikatu ezinik nabil, hau da, ideologia jakinik ez duen ideologia da nirea, eta, era berean, ideologia hertsien kontrakoa da nire lana». Patxi gustuko du, halaber, karikatidak egitea, eta komikietan, polizia, militar eta burgesen alboan azaltzen dira ideologia itxiko pertsona horiek ere. «Panfletoak gorrotatu egiten ditut, baina ideologia itxia duen norbaitek esango luke nire bilduma osoa panfleto hutsa dela».

PERTSONAIK ETORRI ETA PERTSONAIK JOAN

Zaldi Eroan pertsonaia ugari sortu ditu Patxi, baina bilduman ez dago pertsonaia finkorik; pertsonaia gabeko istorio solteak dira. Hala eta guztiz ere, pertsonaia batzuk, sortu, sortu ditu Patxi urte hauetan, eta horietako batzuekin identifikatzen da, neurri batean bada ere: «Agian *Noski Jator*ekin identifikatzen naiz. Euskaltzalea da, intelektuala, eta, euskarari dagokionez, oso erromantikoa. Hala ere, *Noski Jator* ere karikatuta bat da».

Noski Jator, Patxi Huarteren lumatik sortu den pertsonaia euskaltzalea, Iruñeko Karkiri elkar-teak kaleratzen duen *Karrika* aldizkaritxoan azaltzen da gaur egun, baina beste pertsonaia batzuk desagertzen joan dira, batzuetan Patxi nekatu dutelako, eta bestetan beste hainbat kontu direlako. Adibide bat: orain dela gutxi arte *Primitibo* eta *Maikel* bekarioek betetzen zituzten *Nafarkari*ko tirak, baina azken asteotan, *Maikel* desagertu egin

da. «*Maikel*ekin gustura nengoen, baina jendeak esaten zidan nahiago zituela identifikatzeko errazagoak diren pertsonaiak. Beti esaten didate *Noski Jator* bidea eman behar diodala», diosku Patxi. Dirudenez, komiki irakurleek nahiago dituzte pertsonaia jatorrak besteak baino, eta *Maikel*, Patxiaren hitzetan, «kabroi bat» zen.

Orain, pertsonaia horiekin zer egingo duen pentsatzen ari da Patxi, baina oso argi du kritikak onartu egin behar dituela, bere lanerako ere onak izango direlako: «Kritikak jasotzen dituzunean lana ez duzu hain gustura egiten, eta niretzat gustura lan egitea da garrantzitsua. Gainera, kritikek min egiten dute, baina oso beharrezkoak dira. Ni neu ere oso kritikoa naiz besteen lanekin, eta kritikak bueltan etortzen direnean, ametitu egin behar dira», esan digu.

«Panfletoak gorrotatu egiten ditut, baina ideologia itxia duen norbaitek esango luke nire bilduma osoa panfleto hutsa dela»

Aurrerantzean, pertsonaia jakin eta finko batzuei eutsi beharrean, inprobisazioari bidea irekitzeko asmoa du komikigileak, askoz gusturago egiten duelako lan; «*Noski Jator* sartu orain, gero bestea...».

Gainontzean, ez du plan handirik egiten, eta orain ere ez du ezer buruan etorkizunerako. *Freelance* bat denez eta inorekin kontraturik ez duenez, komikigintzaz kanpoko beste esparru batzuetatik atera behar ditu sosa, eta horrek ere denbora kentzen dio. Hala, bilduma hau atera ondoren, gustatuko litzaioke istorio

berriak izango lituzkeen album berri bat egitea, baina ez du horretarako astirik. «Album bat egiteko urte osoa behar duzu, eta dirua ateratzeko lanik ez baduzu egiten... Eta poliki-poliki ezin dezaket ezer osatu. Lanek bat-batekotasuna izan behar dute derrigorrez».

Oso gustukoa duen Goscinyk bezalaxe, komikia eta literatura uztartzea gustatuko litzaioke Patxi, baina, denbora kontuak direla eta, hori ere albo batera utzi beharko du. Beranduagorako gutxienez.

Bitartean, gizartea arakatzeko erabiltzen duen *Zaldi Eroak* haren lanaren ikuspegi orokor bat ezagutzeko aukera eman digu *TMEO*ren bilduma berriarekin. Etzazu galdu.

mikel lizarralde

PIRINEOAK
1000 IGOERA

IV
Bielsatik Aranera
(bide arruntak eta eskalada errazak)

MIGUEL ANGULO

ELKARLANEAN

PIRINEOAK EZAGUTZEKO ERARIK MERKEENA
SALGAI OHIKO DENDETAN